

SHORES SAFE, KOSTALDEKO BIZTANLEEN SEGURTASUNA ETA ONGIZATEA INDARTZEKO PROPOSAMEN EUROPARRA

Posted on 11/11/2025 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Proiektu europarrak](#), [SHORES SAFE](#)

Aste honetan, SHORESAFE proiektuaren proposamena ofizialki aurkeztu da Horizon Europe programara. Ekimen ausart honek Europako kostaldeetako arrisku-kudeaketa eraldatzea du helburu, ikuspegi prebentiboago, prediktiboago, integratuago eta parte-hartzaileago baterantz.

Proiektuak lau urteko iraupena izango du eta guztira 4 milioi euroko aurrekontua izango du. Alicanteko Unibertsitatea da liderra, eta gure zorion eta eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiogu egindako koordinazio- eta lidergo-lan bikainagatik.

NAIDERrek parte hartzen du lehen mailako erakunde europarrek osatutako kontsortzioan, besteak beste, ENT, ERINN, IHS, ATU eta beste bazkide batzuk, zeinekin aurrez beste proiektu batzuetan elkarlanean aritzeko aukera izan dugun.

SHORESAFEren helburu nagusia da kostaldeko populazioen segurtasuna eta ongizatea indartzea, azpiegiturretan eta ekosistemetan sortzen diren kalteak murriztuz. Horretarako, teknologia aurreratuak uztartuko ditu —adimen artifiziala, Gauzen Interneta edo ikusmen konputazionala— gizarte-berrikuntzarekin, hala nola sorkuntza-prozesuak, living lab-ak, prestakuntza eta sentsibilizazioa. Guzti hau **arrisku anitzeko gobernantza integraturako sistema** batean artikulatuko da, larrialdi-zerbitzuak, tokiko komunitateak, babes zibila eta sektore pribatua hobeto koordinatzeko.

Espero diren emaitzen artean nabarmentzen dira: plataforma digital integratua, gobernantza parte-hartzaileko egiturak, erantzun medikorako protokoloak eta komunikazio inklusiborako estrategiak, guztiak gizarte-zientzien eta humanitateen laguntzarekin diseinatuta.

NAIDERrentzat ohore bat da proposamen honetan parte hartzea, eta espero dugu aukeratua izatea, datozen urteetan Europako kostaldeen erresilientzia indartzen laguntzeko eta arrisku naturalen aurrean pertsonetan oinarritutako irtenbide berritzaileak bultzatzeko.

